

**BERGARAKO UDALEKO KALE-GARBIKETAKO 5 PEOI  
ESPEZIALISTAREN LANPOSTU BETETZEKO DEIALDIA.  
BEHIN BETIKO EMAITZAK ETA KONTRATAZIO-PROPOSAMENA.**

Kale-garbiketako zerbitzuko peoi espezialistaren bost lanpostu betetzeko aukeraketa-prozesua martxan jarri zuen udalak.

2016ko apirilaren 16an, epaimahaiak aztertu egin zituen hautagaiek ariketa praktikoaren inguruan jarritako erreklamazioak, onartu egin zituen behin betiko emaitzak, merituen balorazioa egin zuen, eta ondoren argitaratu egin ziren udalaren iragarki-taulan eta udalaren web-orrian.

Erreklamazioetarako epea bukatuta, epaimahaiak honako proposamen hauek egin dituela jakinarazten da:

1.- Puntuazio altuena lortu duten honako izangai hauek kontratatzea:

1. Igartua Gallego, Idoia
2. Zuazobide Ostolaza, Jose Antonio
3. Narvaiza Osinaga, Iñaki
4. Polvorosa Mugica, Aser
5. Velez De Mendizabal Izuskiza, Amaia

2.-Prozesuak aurreikusitako frogak gainditu dutenekin, kale-garbiketako peoien eta peoi espezialisten premietarako lan-poltsa osatzea:

1. Mendizabal Arias Jon
2. Altuna Iza Unai
3. Ona Virto, Joseba Iñaki
4. Gomez Calvo Xoan Agustin
5. Leibar Belastegi, Jon
6. Larrañaga Arregui, Felipe
7. Ezpeleta Irizar, Iker
8. Arregi Saizar, Urko
9. Alberdi Arabaolaza Asier
10. Bravo Vicente, Jose Antonio
11. Esteibarlanda Etxebarria, Beñat
12. Landa Errasti, Gemma
13. Azkarate Egaña, M. Belen
14. Pinto Larrinaga, Unai
15. Zubia Igartua Zuhaitz

Kontuan izanda deialdia arautzen duten oinarrietan jasota dagoela hau:

**“11. Deialdiko betebeharrak kreditatzea**

*1. Onartu eta kontrataziorako proposatutako izangaiek lehiaketa-oposizioan parte hartzeko 3. oinarrian eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, aipatutako argitalpena egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 15 laneguneko epean.”*

Eta oinarrietan hau ere jasota dagoela:

*Oinarrietan zerrendatutako oinarrizko baldintzak eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean beteta egon beharko dira eta 3. Oinarrian j) azpiatalean ezartzen den*

*baldintza kontratua sinatu aurretik edo frogaldian ziurtatzekoa eta frogaldia gainditzeko baldintza izango da. Horrela egin ezean kontratua behin betirako bertan behera lagako da.*

Kontratatuak izango diren izangaiei eta lan-poltsa osatzera pasatuko diren hautagaiei jakinarazten zaie honako agiri hauen jatorrizko agiriak (originalak) aurkeztu behar dituztela Idazkaritzan datorren ekainaren 28a baino lehen:

1. Eskolaratze-ziurtagiria edo parekoa den titulazio-maila izatea, edo titulua eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea. Titulazioak atzerrikoak badira, haien homologazioaren egiaztagiria aurkeztu beharko da.
2. 1. Hizkuntza Eskakizuna, derrigorrezkoa (azterketa egin ez dutenek).
3. B gida-baimena
4. Fitosanitarioen aplikatzaileen oinarrizko formazioa.

Horrela egin ezean, kontratua bertan behera lagako zaie eta eskubide guztiak galduko dituzte, edo/eta lan-poltsan duten lehentasuna galduko dute.

Administrazio-bidean behin-behinekoa den erabaki honen aurka Gorako Errekurtsoa jarri daiteke Alkate andrearen aurrean.

Horretarako hilabeteko epea dago, iragarkia udaleko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Bergara 2016ko apirilaren 29a

Epaimahaiaren idazkariak